

Enigmak eta ekintza



Inork ikusi ezin duena

Jatorrizko izenburua:
 Egilea: Sinclair Smith
 Itzultzailea: Txomin Arratibel
 Argitaratze urtea: 2006
 Argitaletxea: Elkar

MIKEL GARMENDIA

Errealitateko gertakari batetik abiatu eta, errealitate hori utzi gabe, abentura zirrargarri batzuk biziko ditugu, kontakizunaren barrena behin sartuz gero, itsu izandako Grayson hamazazpi urteko neska gaztearekin. Kornea-transplanteen ondorioz, halako ahalmen berezi batzuen jabe egingo da neskatoa: psikismoa. Gaia berez da aproposa fantasiarako eta abenturarako eta horixe baliatu du Sinclari Smithek misterioz eta emozioz betetako eleberri hau idazteko, gazte abentura-goseek hasi eta buka irensteko modukoa.

Itsua zen, bai, eta orain, begi bakoitzean ebakuntza egin diotelarik, errealitateaz gain, balizko gauzak ikusiko ditu, fantasiaren eta errealitatearen artean dabiltzanak. Horien artean, hainbat hilketa –baita berea ere- aurreikusiko ditu, psikiko izateak ematen dion ahalmenari esker. Berehala kutsatuko digu Grayson protagonistak barruan daramatzan egonezina, urduritasuna eta, aldi berean, ausardia. Berehala identifikatuko da irakurlea protagonistarekin eta hala eutsiko dio protagonistaren berak ezarritako tentsioari harik eta istorioa, eta istorioarekin batera kontakizuna, amaituko den arte. Alde horretatik merezimendu handiak ditu kontakizuna egituratzeko egileak erabilitako teknikak. Ekintza da nagusi eleberri osoan eta kapitulu amaiera bakoitzean sortutako klimax-egoerek hurrengo kapituluei berehala ekitera garamatzate.

Enigmak bata bestearen atzetik datozkigu, planteatzen eta ebazten, harik eta enigma nagusia askatuko den arte.

Bidaia horrekin guztiarekin batera amodio-istorio bat ere badago paraleloan, protagonistaren eta Pared gaztearen artean.

Badira, hala ere, kontakizunari kalterik ziurrenik ez, baina mesederik behintzat batere egiten ez dioten hainbat keinu edo zantzu, moral kontserbadorearen adierazgarri: onen eta gaiztoen arteko bereizketa erabatekoa, lanaren kontzeptua, nolabaiteko bide "zuzena", jarraitu beharrekoa, erakusten dutenak. Izan ere EEBBetako gizarte-maila jakin bateko errealitatea dugu kontestua eta, hori bere horretan utziz gero, ez da oztopo gertatzen eta ez dio interesgarritasunik batere kentzen kontakizunari.

Txomin Arratibelen itzulpenak ez du inolako trabarik egiten kontakizunak berez eskatzen duen bizitasunez jarraitzeko. Kontraktotik, samur kurrutzen du testuak. Eta hori, ondo dakigunez, seinale ona da.